


EREMU SAKONERA

Eremu sakonera enfokatutako elementuaren aurretik edota atzetik fokuratuta dagoen hedadura da, garbi ikusten dugun hedadura.




Bi argazkietan eremu sakonera berdina dago.

FOKU-DISTANTZIA

Foku-distantzia zenbat eta handiagoa, eremu sakonera orduan eta txikiagoa.


DIAFRAGMA

Diafragma zenbat eta zabalago egon, eremu sakonera orduan eta txikiagoa.



DISTANTZIA FISIkoa

Fokatuta dagoen bizidunarekiko distantzia fisikoa zenbat eta laburragoa izan, orduan eta txikiagoa da eremu-sakonera.



Eremu sakoneraren erabilera batzuk:

Lehen planoan. Elementu nagusia enfokatuta eta fondoa guztiz desenfokatuta nahi baditugu: elementutik gertu kokatuko gara, foku-distantzia luzea erabiliko dugu (teleobjetiboa, adibidez), diafragma ahal den eta irekien ($f/2.8$).



Lehen planoan. Elementu nagusia enfokatuta eta fondoa pixkat desenfokatuta nahi baditugu: elementutik gertu kokatuko gara (kasu honetan leku berean), foku-distantzia luzea erabiliko dugu (teleobjetiboa), diafragma ahal den eta itxien ($f/22$).



Plano irekiago batean. Elementu nagusia enfokatuta eta fondoa pixkat desenfokatuta nahi baditugu: atzerago kokatuko gara (kasu honetan leku berean), foku-distantzia luzea erabiliko dugu (angeluhandia), diafragma ahal den eta irekien ($f/2.8$).



Plano irekiago batean. Elementu nagusia enfokatuta eta fondoa enfokatu nahi baditugu: atzerago kokatuko gara kokatuko gara (kasu honetan leku berean), foku-distantzia luzea erabiliko dugu (angeluhandia), diafragma ahal den eta itxien ($f/22$).

